

Ezpalak

JON TORNER

Irati Elorrieta algortarrak eta Begoña Torregrosa kataluniarrak irabazi dute Bilboko Udalak antolatutako Gabriel Aresti Ipuin Lehiaketa. Irati Elorrieta euskarazko sailean izan da nagusi, *Post H.Pop* ipuinari esker, eta Begoña Torregrosa gaztelaniazkoan, *En un cajón del armario* lanarekin.

Bestalde, Ruben Ruiz idazle gasteiztarraren *Anekdotak* ipuinak jaso du Lizardi Saria. Irabazleak 3.700 euroko saria jasoko du eta liburuaren 2.400 ale doan banatuko dituzte Zarauzko ikastetxeetan.

Valentin Sama argazkilari madrildarrak (Espainia) *Trantsizioak* izeneko erakusketa paratu du Iruñeko Centraluz galerian. Kopia originalak eta gaur arte inon erakutsi gabeko irudiak bildu ditu Samak bertan. Erakusketa martxoaren 31 arte izango da zabalik.



Peter Blake pop artista britainiarren (Dartfordt, 1932) ehundik gora obra bildu dituzte Bilboko Arte Eder museoan. *Peter Blake. Atzera begirakoa* izeneko erakusketa Tate Liverpool galeriak antolatu du. Ekainaren 22a arte izango da ikusgai.

Oskar Arana izango da hemendik aurrera Euskal Itultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarteko (EIZIE) lehendakari berria. Aranak Beatriz Zabalondoren lekua hartuko du eta Itziar Otegi izango du laguntzaile bere kargu berrian.

Goizeder Urtasun nafarrak *Ximeneiak* dokumentala aurkeztu berri du. Langile mugimenduak azken 30 urteetan Nafarroan izan duen ibilbidea jaso du egileak. Dokumentalari buruzko informazioa <http://ximeneiak.com> webgunean eskura dezakezue.

Jon Martinek (Oiartzun, 1981) *Ero* liburua (Elkar) argitaratu du. 2006an idazle gazteentzako Igartza bekako saria eskuratu zuen Martinek lan horri esker. Egileak era askotako gaitz psikiko, trauma eta obsesioak ipuingai bilakatu ditu.

1.115 maketa aurkeztu dituzte Bilbo Hiria Pop Rock Lehiaketara



Bilbo Hiria Pop Rock Lehiaketa erreferentzia bilakatu da, ez soilik Euskal Herrian, baita Espainiako Estatu osoan. Urteak pasa ahala sendotuz joan da eta aurtien, 20. edizioan, 1.115 maketa aurkeztu dituzte lehiaketara. Horietatik 48 aukeratu ditu

epaimahaiak, eta orain zuzeneko txanda heldu da. Ekainaren 4a bitartean, asteazken eta ostegunetan 48 talde horiek kontzertuak eskainiko dituzte Bilborock aretoan. Bestalde, lehiaketa irabazten duen taldeak Azkena Rock Festival jaialdian jotzeko aukera izango du. Informazio gehiago: www.bilbao.net/bilborock.

Basterock Gauak Andoainean

ANDOAINGO UDALAK eta Irungo Bloody Mary dendak *Basterock Gauak* ekimena antolatu dute. Zuzeneko hainbat kontzertu osatuak deute egitaraua. Andoaingo Udalak izango dira guztiak: Deke Dickerson & Crazy Joe (martxoaren 18an), King Khan & His Shrienes (apirilaren 4an), Subsonics eta Tiger!Tiger! (maiatzaren 16an) eta Hi-Risers (ekainaren 6an). Bestalde, ekainaren 21ean jaialdia egingo da Andoaingo Nafarroa Enparantzan. AEBetako hainbat taldek, Maharajas suediarrek, Las Membranas kataluniarrek eta Lisabö irundarrek parte hartuko dute jaialdian.

[Hasier Etxeberria idazle eta kazetariak *Alma Mundua!* blogean](#), Lourdes Mendez arte antropologoak *Berrian* (2008-02-27) esandako harira (ikus ARGIA 2.127): «Ez dut nik ukatuko emakume ez denik egon bazterturik plastikanen historian (eta literaturan eta beste hainbat alorretan), eta eginahalak egin behar direla horri aurre egiteko (...) Baina, nik dakidala —eta barkatu konparaketa hain maskulinoa—, futboleko Espainiako Ligako Lehen Mailan ere, ez du inongo emakumek golik sartu sekula. Azter dezagun horren zergatia eta bidegabeberia, hala nahi baldin bada, eta jar diezaigun erremedioa, baldin badakigu nola, baina ez dezagun uka orain arteko golak sartu dituztenak gizonetzakoak izan direnik, gezurra litzateke eta. Ez ditzagun nahasi antzarak eta ferrak».

[Luis Duran, *Aljebra* komikiaren egileak *Garan*](#): «Album formatua, album europarra, pixkanaka desagertzen joango dela uste dut, liburuaren antzeko orrialdeko komiki bide emateko. Banatzaile eta editoreek merkatal plataforma handietara (Fnac, Corte Inglés...) iritsi nahi dute, gaur egun literatura kontsumitzen duen publikoa erakartzeko. Liburuaren antzeko neurria duten komiki tarantz jotzen dute formatuek, nobela grafikorantz».

[Victor Moreno irakasle eta idazleak *Berrian*](#): «Obraren eta irakurlearen arteko bitartekariak direla erraten duten kritikariak gezurretan ari dira. Merkaturaren eta irakurlearen artean dago gaur egun kritikaria (...) Kritikariak, finean, publizista bilakatu dira».

Abarrak

GORKA BEREZIARTUA

Boz hauek irabazi dituzu, Charles

Hautagai politiko baten aurpegia publizitate-panelean
Charles Bukowski (*Poema antologia*, Susa 1997)

Itzulpena: Josu Lartategi.

Joan den asteburuko hauteskunde eta bozek buruko mina, promesa batzuk eta euforia momenturen bat utzi dute, whisky koloreko gau baten antzera. Sobretxoa hatz punttekin kutxara bultzatzeko garaia heltzen den bakoitzean Charles Bukowskiren *Hautagai politiko baten aurpegia publizitate-panelean* poema etortzen zait gogora. "Hor dago:/ aje handiegirik ez/ emakumeekin borroka gehiegirik ez/ neumatiko hustu gehiegirik ez/ ez zuen inoiz pentsatu suizidioan". Zerri mozkor misoginoa zen Bukowski eta idatzita utzi zituen gauza asko lotsa pizteko modukoak dira gaur egundik begiratuta –ziurrenik idatzi ziren garaitik ere bai, baina guk ez genuen hura bizi izan–. Egongo da esango duenik bere garaiaren seme izan zela, etxean jipoitu egiten zutela umetan, *underground* den guztiak duela probokazio puntu bat, intentzio onekin literatura txarra baino ezin dela egin. Bai eta? Duela urtebete inguru *The Bukowski tapes* ikusi nuen, idazleari egindako hainbat elkarrizketa biltzen dituen film dokumentala. Horietako batean bere emaztearekin eztabaidatzen hasi zen, eta kameraren aurrean muturreko bat jo zion. Nazkagarria izan zen. Bere buruari eta inguruan zituenei arazoak sortzeko abilitadea zuen Charles zaharrak. Oka eragiten dit emakumeekin zuen jarrerak. "Hagineta mina hiru aldiz gehienera/ inoiz ez zuen otordurik huts egin/ inoiz ez zen kartzelan egon/ inoiz ez maiteminetan". Beharbada poeta miseria moralaren pertsonifikazioa zelako du hainbesteko indarra testu honek. Bukowskik hautagaia erretratatzan du –"zazpi zapata pare/ seme bat unibertsitario/ urtea bete ez duen autoa"– bere burua argazki horren negatibo bihurtuz. Bukowski inoiz izan ez zen guztia errepresentatzen du hautagaiak –"aseguru polizak/ etxeko jardina berde-berdea/ zaborrontzi tapaki hermetikodunak/ seguru hautatuko dutela"–. Ba ote? Poemari egiten diodan bigarren irakurketa ondokoa da: hautagai politikoek ere estolderia zikinak dituztela, baina mantu zurizko estalkia jartzen dute, kanpainak eta agintaldiak iraun bitartean. Hori salatu nahi izan zuen Bukowskik beharbada. Bueltarik ez duen arazoa da. Zintzotasuna, zuzentasuna, segurtasuna, perfekzioa eskatzen diegu gizarteko liderrei, nahiz eta badakigun guztia bufoikeria hutsa dela. Ez gaitzen engaina, asteburuan bozka eman genien pertsonak diru publikoa lapurtuko dute, agintea interes pertsonaletarako erabili, hauteskunde programan hitz emandakoak ahaztu. Baina ez dira harro agertuko kamera aurrean hori egiten. Arazoa ez da egitea, egin duzula esatea baizik. Pentsatzen jarrita, Bukowski gorbata larrosarekin ez zen hain hautagai txarra izango.



hotela
Atxaspi

Bittorio kalea 24
31770 LESAKA
Tel.: 948 637 53
www.atxaspi.com